19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.	**19. DECISIÓN DE NO CELEBRAR EL CONTRATO Y DESISTIMIENTO DEL PROCEDIMIENTO** De acuerdo con lo previsto en el artículo 152 de la LCSP, el Órgano de Contratación, por razones de interés público debidamente justificadas, podrá adoptar la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato. También podrá desistir del procedimiento cuando aprecie una infracción no subsanable de las normas de preparación del contrato o de las normas reguladoras del procedimiento de adjudicación. Tanto la decisión de no celebrar el contrato como el desistimiento del procedimiento deberán llevarse a cabo antes de la formalización del contrato, y de acuerdo con los requisitos establecidos en el referido artículo.

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

Elduaingo Udala
Gipuzkoa

III. KONTRATUA EGIKARITZEA	III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO
20. KONTRATUA GAUZATZEA	**20. EJECUCION DEL CONTRATO**
Kontratistak galdu-gordean beteko du kontratua; eta kontratatzaileak ondasunak berandu jaso dituen kasuetan izan ezik, ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, baldin eta ondasunak administrazioaren esku utzi aurretik, ondasun horietan matxuraren bat edo galeraren bat gertatzen bada.	La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista y éste no tendrá derecho a indemnizaciones por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en los bienes antes de su entrega a la Administración, salvo que éste hubiese incurrido en mora al recibirlos.
Ondasunak plegu honetan zehaztutako epean eta tokietan hornitu eta instalatu beharko dira, bertan ezarritako zehaztapen teknikoei eta baldintza administratiboei jarraiki. Hala eta guztiz ere, Administrazioak, kontratua betetzen den bitartean, hitzartutakoa ez den beste toki bat izendatzeko eskumena izango du.	Los bienes deberán ser suministrados e instalados en el tiempo y lugares fijados en el presente pliego, de conformidad con las prescripciones técnicas y cláusulas administrativas. No obstante, la Administración, durante la ejecución del contrato, se reserva la facultad de fijar otro lugar distinto al pactado.
Plegu teknikoetan horrela adierazita, produktu guztiak ondo identifikatuta eta etiketatuta entregatu beharko dira Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko du kontratua nola betetzen den. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabiliko ditu eskumen horiek.	Todo el material vendrá debidamente identificado y etiquetado tal y como se especifica en los pliegos técnicos. La ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.
Kontratistari edo honen ardurapeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintzak edo hutsegiteak direla medio, kontratu honen bilakaera egokia eragozten baldin bada, Administrazioak egoki iruditzen zaizkion neurriak hartu ahal izango ditu, kontratua behar bezala bete dadila lortu ahal izateko.	Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime oportunas para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.
21. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK	**21.- CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.**
Kontratua egikaritzeko honako baldintza berezi hauek ezarri dira, bat etorriz Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) 202. Artikuluan ezarritakoarekin:	Se establecen las siguientes condiciones especiales de ejecución del contrato, de acuerdo con lo establecido en el artículo 202 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público:
21.1 Lan arloa, gizarte segurantzaren arloa, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko baldintzak.	**21.1.- Condición en materia laboral, seguridad social y de seguridad y salud en el trabajo**
Enpresa kontratugileak bete egin beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko	La empresa contratista deberá cumplir todas las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

xedapen guztiak, lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean daudenak. Eta, kontratuak indarrean dirauen bitartean, kontratuaren esleipendunak egunean eduki beharko ditu bere langileen soldatekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak. Kontratua betetzeko aldi osoan zehar, enpresa kontratistak obligazioa izango du lanaldiari eta soldatari dagozkion urteko lan baldintzak, eskaintza aurkezten den unean ezarri beharrekoa den hitzarmen kolektiboaren arabera, unean-unean kontratuari atxikitako langileei dagozkienak, edo hala badagokio, lan hitzarmena hobetzeko asmotan enpresaren eta langileen artean sinatutako itunak, bere kabuz eta alde bakarreko erabakiaren bitartez ez murrizteko, salbu eta enpresaren eta langileen ordezkarien artean horretarako berariazko akordioa hartzen ez bada. Klausula honetan ezarritako betebeharrak kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa hartuko dira, eta horiek bete ezean, kontratua suntsitu ahal izango da. **21.2.- Kontratua gauzatzean zaindu beharreko baldintza linguistikoak** Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Elduaingo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantzan eta erabilera-planaren baitan Elduaingo udalak onartutako hizkuntza-irizpideetan. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da: "18 d) Kontratazio arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen."	vigentes en materia laboral, seguridad social, y seguridad y salud en el trabajo, En especial, el adjudicatario del contrato, durante todo el período de su vigencia, deberá encontrarse al corriente en las obligaciones salariales con sus trabajadores y con la Seguridad Social. Durante todo el período de ejecución del contrato, la empresa contratista está obligada a no minorar unilateralmente las condiciones de trabajo que, en materia de jornada y salario, y en términos anualizados, correspondan en cada momento a los trabajadores adscritos al contrato en función del convenio colectivo que resulte de aplicación al presentarse la oferta o, en su caso, de los pactos suscritos entre la empresa y los trabajadores en lo que mejoren el convenio, salvo acuerdo explícito entre empresa y la representación de los trabajadores. Las obligaciones impuestas en esta cláusula tienen la consideración de condición especial de ejecución del contrato y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del contrato. **21.2.- Condiciones lingüísticas de ejecución** Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre la que está la ordenanza municipal para la normalización del uso del euskera y los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento de Elduain en el marco del plan de uso del euskera. El Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su artículo 18 establece las determinaciones que los planes de normalización del uso del euskera deben recoger, entre ellas la siguiente: "18 d) Medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con el usuario y se ejecuten por terceras personas sean prestados a la ciudadanía en condiciones

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

	lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente".
Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen **ondorio berdinak** izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.	Los requerimientos lingüísticos que se recogen en los siguientes pliegos de condiciones constituyen una obligación esencial del contrato a los efectos de la Ley de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede tener **consecuencias** idénticas al del resto de condiciones, es decir, la aplicación de penalidades o su resolución.
Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz; kanpo geratzen dira txosten eta memoria teknikoak. Ahozko harremanak ere euskaraz izango dira, ahal den neurrian.	Las relaciones tanto escritas habituales (contratos, facturas, etc.) de la empresa con la administración se ajustarán a la lengua de trabajo de ésta última, es decir, en euskera; quedan al margen los informes y memorias técnicas. Las relaciones verbales serán asimismo en euskera, siempre que sea posible.
Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren **jarraipena:**	**Seguimiento** del grado de cumplimiento de los requerimientos lingüísticos:
Kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.	La unidad administrativa promotora del contrato será responsable de hacer un seguimiento del cumplimiento de los requerimientos lingüísticos establecidos en él, de modo análogo al seguimiento del resto de condiciones y en plazos similares, dando cuenta de ello al Servicio de Euskera, quien dará su aprobación o propondrá medidas correctoras.
Klausula honetan ezarritako betebeharrak kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa hartuko dira, eta horiek bete ezean, kontratua suntsitu ahal izango da. Kontratuaren parte diren exekuzio baldintza berezi guztiak berdin-berdin eskatuko zaizkie kontratuaren exekuzioan parte hartuko duten kontratista guztiei.	Las obligaciones impuestas en esta cláusula tienen la consideración de condición especial de ejecución del contrato y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del contrato T odas las condiciones especiales de ejecución que forman parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen en la ejecución del mismo
22.- ADJUDIKAZIODUNAREN BESTELAKO BETEBEHARRAK **22.1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezkeen oinarrizko betebeharrak.** Kontratua gauzatzeari begira, oinarrizko betebeharrak izango dira hauek:	**22.- OTRAS OBLIGACIONES DE LA PERSONA ADJUDICATARIA** **22.1.- Obligaciones esenciales que pueden ser causa de resolución del contrato.** Tendrán la condición de obligaciones esenciales de ejecución del contrato, las siguientes:

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

Elduaingo Udala
Gipuzkoa

a. Adjudikaziodunaren proposamena betetzea, balioespenaren xede izan diren alderdi guztietan, kontraturako ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.	a. El cumplimiento de la propuesta del adjudicatario en todo aquello que haya sido objeto de valoración de acuerdo con los criterios de adjudicación establecidos para el contrato.
b. Azpikontratazioaren inguruan administrazio-baldintza berezien agiri honetan xedatutako betebeharrak.	b. Las obligaciones establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares en relación con la subcontratación.
c. Kontratua gauzatzeko atxikitako baliabide pertsonal eta materialen inguruan administrazio-baldintza berezien agiri honetan xedatutako betebeharrak.	c. Las obligaciones establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares en relación con la adscripción de medios personales y materiales a la ejecución del contrato.
d. Baldintza-agirian kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak ez betetzea.	d. El incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución establecidas en los pliegos.
229.2.- Igogailuaren harrera eta berme-epea.	**22.2.- Recepción y Plazo de garantía del ascensor.**
Kontratua bukatu, eta gehienez ere, hilabeteko epean harrera egiteko egintza formala eta positiboa egingo da.	En el plazo máximo de un mes desde que se efectúe la finalización del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción del mismo.
Hornidura eta instalazioa onartzeko moduan ez badaude, hori argi eta garbi jasota utziko da, eta kontratistari instrukzioak emango zaizkio akatsak zuzen ditzan, edo hitzartutakoaren arabera, hornidura berria ekar dezan. Kontratistak akatsak zuzentzen ez baditu edo hornidura berria ekartzen ez badu, Udalak kontratistaren esku utziko du hornidura akastuna, eta ez du ordaintzeko obligaziorik izango, edo bestela, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.	Cuando el suministro y su instalación no se hallen en condiciones de ser recibidos, se hará constar expresamente y se darán instrucciones al contratista para que subsane los defectos o proceda a un nuevo suministro de acuerdo con lo pactado. Cuando no se realice la subsanación o sustitución, el Ayuntamiento los dejará de cuenta del contratista quedando exento de la obligación de pago o adquiriendo el derecho a recuperar lo pagado.
Era berean, bermerako, **bi (2) urteko** epea ezarriko da, harrera formala egiten den egunetik aurrera.	Asimismo, se establece, como mínimo, un plazo de garantía de **dos (2) años**, a contar desde la fecha de recepción.
Udalak, bermerako ezarritako epearen barruan, ondasunek dituzten akatsengatik edo kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, hornitutako ondasunak kontratuan ezarritako xedea betetzeko egokiak ez direla ikusten baldin badu, eta kontratuan ezarritako xedea betetzeko, ondasun horiek berriro ekartzea edo konpontzea nahikoa ez dela uste izan badaiteke, ondasunak atzera bota eta kontratistaren esku utzi ahal izango ditu, betiere, bermerako epearen barruan	Si el Ayuntamiento constatase, durante el plazo de garantía, que los bienes suministrados e instalados no son aptos para el fin pretendido como consecuencia de los vicios o defectos imputables al contratista y fuera presumible que su reposición o reparación no son suficientes para conseguir aquel fin, podrá, dentro de aquel plazo, rechazarlos y dejarlos a cuenta del contratista.

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

Berme-epea igaro eta hornitutakoari eragozpenik jarri ez bazaio, kontratistaren erantzukizuna iraungi egingo da.	Transcurrido el plazo de garantía sin que se hayan formulado reparos a lo suministrado, quedará extinguida la responsabilidad del contratista.
22.3.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak Kontratistak ordainduko ditu lizitazioetan adjudikazio-iragarki(ar)en gastuak, formalizazioaren gastuak eta aplikagarri diren gainerako guztiak, indarreko xedapenei jarraikiz eta horietan ezartzen den moduan eta zenbatekoan.	**22.3.- Gastos exigibles al contratista** Son de cuenta del Contratista los gastos del anuncio o anuncios de licitación y adjudicación, en su caso, de la formalización del contrato, así como cualesquiera otros que resulten de aplicación, según las disposiciones vigentes en la forma y cuantía que éstas señalen.
22.4.- Baimenak eta lizentziak kudeatzeari loturiko betebeharrak. Kontratistak kudeatu beharko ditu udal-ordenantzetan eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturen arauetan ezarritako baimenak eta lizentziak, hornidura abiarazteko, egikaritzeko eta entregatzeko beharrezkoak direnak, salbu eta kontratazio organoak kudeaketak bere kabuz egitea erabaki eta berariaz jakinarazten badu, Administrazioari eskatu beharko zaizkio horretarako behar diren agiriak	**22.4.- Obligaciones relativas a la gestión de permisos, licencias y autorizaciones** El contratista estará obligado, salvo que el órgano de contratación decida gestionarlo por sí mismo y así se lo haga saber de forma expresa, a gestionar los permisos, licencias y autorizaciones establecidas en las ordenanzas municipales y en las normas de cualquier otro organismo público o privado que sean necesarias para el inicio, ejecución y entrega del suministro, solicitando de la Administración los documentos que para ello sean necesarios.
30. AZPIKONTRATAZIOA Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.	**23. SUBCONTRATACIÓN** El contratista podrá subcontratar con terceros la realización parcial de la prestación. En todo caso, dicha subcontratación, estará sometida al cumplimiento de los requisitos de los artículos 215 y 216 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
24. KONTRATUAREN ALDAKETA Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLren 205. Artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin. Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak dagokion proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten agiriek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLren 191.	**24. MODIFICACIONES DEL CONTRATO** Una vez perfeccionado el contrato, solo se podrán introducir modificaciones por razones de interés público, en los casos previstos en esta cláusula o en los supuestos y con los límites establecidos en el artículo 205 y siguientes de LCSP. Cuando sea necesario introducir modificaciones en el contrato la dirección del contrato redactará la oportuna propuesta, integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquella. La aprobación de la modificación por la Administración requerirá la previa audiencia de la empresa contratista. Las modificaciones deberán ser apro-

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura izapidetu ondoren eta administrazio-agirian formalizatu beharko da SPKLren 153. artikuluan adierazitakoaren arabera; bere kasuan, behin betiko bermea berregokitu beharko da aldez aurretik.	badas por el órgano de contratación, previa tramitación del procedimiento previsto en el artículo 191 y 207 de la LCSP y formalizarse en documento administrativo con arreglo a lo señalado en el artículo 153 de la LCSP, previo reajuste de la garantía definitiva en su caso.
25. KONTRATISTA ALDATZEA Enpresak edo horien jarduera-adarrak bateratzen, bereizten, ematen edo eskualdatzen badira, kontratuak indarrean jarraituko du eragiketa horren ondoriozko erakundearekin, eta erakunde hori kontratuak ezartzen dituen eskubide eta betebeharren menpe geratuko da, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) 98. Artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen baditu. Kontratistaren betebeharra da bere nortasun juridikoan egon daitekeen edozein aldaketaren berri ematea administrazioari, modu frogagarrian. Kasu horretan, dagozkion fakturak ordaintzeko legez ezarritako epeen zenbaketa eten egingo da, subrogazio baldintzak betetzen direla egiaztatu arte. Subrogaziorik egin ezin bada kontratuaz arduratuko den erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua baliogabetu egingo da, eta kontratistaren errua izan dela ulertuko da ondore guztietarako.	**25. SUCESIÓN EN LA PERSONA DEL CONTRATISTA** En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el contrato vigente con la entidad resultante, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se producen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. Es obligación del contratista comunicar fehacientemente a la Administración cualquier cambio que afecte a su personalidad jurídica, suspendiéndose el cómputo de los plazos legalmente previsto para el abono de las facturas correspondientes hasta que se verifique el cumplimiento de las condiciones de la subrogación. Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el mismo, considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa del contratista.
26. BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK **26.1. Berandutzeagatiko zigorrak** Adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko epea eta kontratazio-organoak zehaztutako epe partzialak bete behar ditu nahitaez. Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratua betetzeko guztizko epea atzeratuko balitz, administrazioak kontratua suntsiaraz dezake, edo egun bakoitzeko zigorra ezar dezake, kontratuaren prezioko 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan, BEZa kontuan hartu gabe.	**26. PENALIDADES POR INCUMPLIMIENTO** **26.1. Penalidades por demora** La adjudicataria queda obligada al cumplimiento del plazo de ejecución del contrato y de los plazos parciales fijados por el órgano de contratación. Cuando la contratista, por causas imputables a la misma, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido.

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

Elduaingo Udala
Gipuzkoa

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua suntsiarazteko, edo hura gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, beste zigor batzuk ezarriz.	Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5% del precio del contrato, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratuan zehaztutako prestazioak zati batean gauzatuko ez balira, administrazioak kontratua suntsiaraz dezake, edo lehenago zehaztutako zigorrak ezar ditzake.	Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución o por la imposición de las penalidades establecidas anteriormente.
26.2. Prestazioa ez betetzeagatiko edo oker betetzeagatiko zigorrak	**26.2. Penalidades por incumplimiento o cumplimiento defectuoso de la prestación**.
Oso larritzat jotzen da adjudikaziodunak baldintza partikularren agiri honetako 21. klausulan zehaztutako funtsezko betebeharretatik edozein ez betetzea.	Se consideran muy graves los incumplimientos por parte del adjudicatario de cualquiera de las condiciones especiales de ejecución establecidas en la cláusula 21 de este pliego de cláusulas particulares.
Ez badira betebeharrak betetzen, kontratua suntsitu ahal izango da, gertaera hori salbuespentzat jotzen bada eta onbideratzeko aukera ikusten bada izan ezik, edota kontratua suntsitzea hornikuntzaren intereserako komenigarria ez dela ikusten bada; kasu horietan, kontratua suntsitu ordez, dagokion zigorra ezarriko da.	Estos incumplimientos serán causa de resolución del contrato, salvo que se considere que la actuación es aislada y susceptible de reconducción, y que la resolución del contrato no resulta conveniente para el interés del suministro en cuestión, en cuyo caso se sustituirá por la penalización correspondiente.
Oso larritzat jotzen diren kontratuaren ez-betetze horien ondorioz, adjudikazio prezioaren %1etik % 10era arteko zigorrak ezarriko dira (BEZ gabe) arau-hauste bakoitzeko edota epetik kanpoko egun bakoitzeko, arau-haustearen larritasunaren, errepikapenaren eta fede txarraren arabera.	Estos incumplimientos contractuales muy graves conllevarán la imposición de las penalidades coercitivas por importe de entre el 1% y el 10% del precio de adjudicación IVA excluido, por cada infracción y/o día de incumplimiento de plazos en función de gravedad, reincidencia y mala fe en la comisión de la infracción.
Kontratistak azpikontratazioaren arloari dagokionez 26. klausulan zehaztutako betebeharrak betetzen ez baditu, azpikontratatutakoaren zenbatekoaren %1etik % 10era arteko zigorra ezarriko da, eta errepikatzen badu, kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da.	El incumplimiento por parte de la contratista de las obligaciones establecidas en la cláusula 29 en materia de subcontratación, conllevará una penalización del 10% del importe de lo subcontratado, siendo su reiteración causa de resolución del contrato.
Adjudikaziodunak beste edozein kontratu-betebehar betetzen ez badu edo oker betetzen badu, kontratuaren prezioaren % 1etik % 10era arteko isun hertsagarria ezarriko da, larritasunaren arabera eta behin baino gehiagotan egin duen kontuan hartuta.	El incumplimiento por parte de la adjudicataria de cualquier otra de sus obligaciones contractuales o su cumplimiento defectuoso, conllevará igualmente una multa coercitiva por importe de entre el 1% y el 10% del precio del contrato, en función de su mayor o menor gravedad y reincidencia.

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

Adjudikaziodunari ezarriko zaizkion zigorrak direnak direla, ez-betetze horren ondorioz udalari edo hirugarrenei eragindako kalte eta galerengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko ditu kontratistak, eta udalaren kontra jo ahal izango du. Kontratistak kontratua bere arrisku eta benturara onartu duela ulertuko da, SPKLren 197. artikuluaren arabera.	Las penalizaciones que se impongan a la adjudicataria son independientes de la obligación de la contratista de indemnizar por los daños y perjuicios que su incumplimiento ocasione al Ayuntamiento o a terceros con derecho a repetir contra el Ayuntamiento. El contrato se entenderá aceptado por la contratista a su "riesgo y ventura", con arreglo al artículo 197 de la LCSP.
26.3. Zigorrak ezartzea Kontratua hausteagatiko zigor eta kalte-ordain horiek ezartzeko, kontraesanezko espediente sumario bati jarraituko zaio. Espediente horren barnean, alegazioak egiteko 5 egun naturaleko epea emango zaio kontratistari, salaketa egiten denetik zenbatzen hasita. Alkateak edo hark eskuordetzen duenak ebatziko ditu alegazioak eta zigor-espedientea, zerbitzuaren udal-arduradunaren txostena eta txosten juridikoa egin ondoren. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio bideari. Zigor horiek ezartzeko espedientea gertaeren berri idatziz jasotzen duen unean abiaraziko du udalak. Hala ere, betebeharrak ez bete arren, horrek lanak gauzatzeko orduan ondorio larririk eragiten ez duela ondorioztatzen bada edo zigor espedientea abiaraztea kontratuaren martxarako onuragarria baino kaltegarriagoa izango dela jotzen bada, kontratuaren berme-epea amaitu baino lehenagoko edozein unetan abiarazi ahal izango da espedientea. Ezarritako zigorrak eta kalte-ordainak berehala gauzatu ahal izango dira, eta udalak kontratistari egin behar dizkion ordainketetatik kendu ahal izango dira. Ordainketa guztiak eginak baditu udalak, behin betiko bermetik kendu ahal izango dira kopuru horiek, eta behin betiko bermea zigorra ordaintzeko nahikoa ez bada, premiamendu-bide administratiboa erabiliz egin ahal izango da erreklamazioa, zuzenbide publikoko sarreratzat hartu behar delako.	**26.3. Imposición de penalidades** Para la imposición de estas penalizaciones e indemnizaciones por incumplimientos contractuales se seguirá un expediente contradictorio sumario, en el que se concederá al contratista un plazo de alegaciones de 5 días naturales tras formularse la denuncia. Dichas alegaciones y el expediente de penalización será resuelto, previo informe del responsable municipal del servicio e informe jurídico, por el Sr. Alcalde o Concejal en quien delegue, resolución que pondrá fin a la vía administrativa. El inicio del expediente para la imposición de estas penalidades por el Ayuntamiento se realizará en el momento en que tenga conocimiento por escrito de los hechos. No obstante, si se estima que el incumplimiento no va a afectar a la ejecución material de los trabajos de manera grave o que el inicio del expediente de penalización puede perjudicar más a la marcha de la ejecución del contrato que beneficiarla, podrá iniciarse dicho expediente en cualquier momento anterior a la terminación del plazo de garantía del contrato. Las penalidades e indemnizaciones impuestas serán inmediatamente ejecutivas y se harán efectivas mediante deducción de los pagos correspondientes que el Ayuntamiento tenga pendientes de abonar al contratista. Si ya no existiesen cantidades pendientes de pago, se podrán hacer efectivas contra la garantía definitiva y si ésta no alcanzase el montante de la penalización, se podrá reclamar por la vía administrativa de apremio por considerarse ingreso de derecho público.
27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK	**27. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

Hornidura-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 306. artikuluetan daude ezarrita.	Constituyen causas de resolución del contrato de suministros las establecidas en los artículos 211 y 306 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
28. KONTRATUAREN ARDURADUNA Kontratua esleitzeko erabakian Udaleko teknikari bat izendatuko da kontratuaren erantzulea izateko, kontratua gauzatzearen inguruko ikuskapena egiteko eskumenarekin eta jarraibideak emateko ahalmenarekin	**28. RESPONSABLE DEL CONTRATO** En el acuerdo de adjudicación del contrato se designará un técnico del Ayuntamiento responsable del contrato con facultades de supervisión y capacidad para dictar instrucciones sobre la ejecución del contrato.
29. DATU PERTSONALEN BABESA Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoari dagokionez, bai eta datu pertsonalen tratamenduarekin lotuta pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen 2016/679 Erregelamenduari dagokionez ere (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).	**29. PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL** En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, la contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional 25 de la LCSP, en relación con la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento (UE) 2016/679 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos).
30. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.	**30. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN** Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender su ejecución, acordar su resolución y determinar los efectos de esta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	**IV.- NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE**
31. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen	**31. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO DEL CONTRATO** El contrato que en base a este pliego se realice tendrá carácter administrativo, y se regirá por el presente pliego y el resto de la documentación técnica que lo acompaña. En todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la Ley

SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak. Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.	9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y, en todo lo que no se oponga a la citada Ley, se aplicará lo establecido en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre; en el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público; y en las demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas. En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.
32. ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA Baldin eta kontratazio honi dagozkion izapide egintzek gaiaren oinarria zuzenean edo zeharka ebazten badute, prozedura ezin jarraitzea badakarte, defentsa gabezia badakarte edo kalte konponezina eragiten badiete eskubide eta interes legitimoei, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da haien aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera	**32. RECURSOS Y JURISDICCIÓN COMPETENTE** Los actos de trámite relativos a esta contratación que resuelvan directa o indirectamente el fundamento del asunto, supongan la imposibilidad de continuar el procedimiento, supongan indefensión o perjudiquen irreparablemente derechos e intereses legítimos, podrán ser objeto de recurso potestativo de reposición, conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o bien, recurso contencioso-administrativo, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción contencioso-administrativa.

Elduainen, 2021eko azaroaren 24n.

Alkate-Lehendakaria

EGINBIDEA.- Plegu hau Elduaingo Udalaren Alkateak Dekretu bidez onartu zuen 2021eko azaroaren 24ean.

Idazkari Kontu-hartzailea

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03110***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03110***

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLEGU ADMINISTRATIBOA IGOGAILUA
CSV/EKS:	SINA17398344-5344-427a-a3de-a20024f8e055

Data / Fecha: 2021/12/01 16:28:10
Sinatzailea 1 / Firmante 1: AMUNDARAIN ZUBILLAGA OIHANA - 72481789A

Data / Fecha: 2021/12/01 16:30:31
Sinatzailea 2 / Firmante 2: GARMENDIA MIGUEL MARIA PILAR - 72574128C